

NAZIOARTEKO
MERKATARITZAKO JOERAK
ETA EAE-KO ESPORTAZIOEN
POSIZIONAMENDUA


2019KO URTARRILA



BasqueTrade
& Investment

ADIMEN LEHIAKORREKO UNITATEA

AURKIBIDEA

0	SARRERA	•••	01	1	LABURPENA ETA ONDORIOAK	•••	03
2	METODOLOGIA	•••	08	3	MUNDUKO INPORTAZIOEN ANALISIA ETA BILAKAERA	•••	09
4	EAEKO ESPORTAZIOEN ANALISIA ETA BILAKAERA	•••					17
5	EAEKO ESPORTAZIOEK MUNDUKO INPORTAZIOETAN DUTEN KUOTAREN ANALISIA	•••					22
	5.1. EAEKO KUOTAREN ANALISIA ZONA GEOGRAFIKOEN ARABERA 5.2. EAEKO KUOTAREN ANALISIA JARDUERA EKONOMIKOAREN ARABERA 5.3. KUOTEN BILAKAERA HERRIALDEAREN ARABERA 31 SEKTORETAN 5.4. EAEKO ESPORTAZIOEN POSIZIONAMENDU LEHIAKORRA 5.5. ENPRESAK NAZIOARTÉKOTZEKO 2017-2020 PLANEKO LEHENTASUNEZKO ETA AZTERTU BEHARREKO HERRIALDEEN BANAKAKO ANALISIA						
	ERANSKINA	•••					65
	1. METODOLOGIA 2. INPORTAZIOEN HAZKUNDE NAGUSIAK, EHUNEKOARI ETA BALIOARI DAGOKIENEZ, EAEKO 31 SEKTORE ESPORTATZAILÉENETAN 3. EAEKO MERKATARITZA-KUOTAREN BILAKAERA, EAEKO 31 SEKTORE ESPORTATZAILÉENETAN 4. EAEKO MERKATARITZA-KUOTAREN BILAKAERA, EAEKO 31 SEKTORE ESPORTATZAILÉENETAN. KUOTA ALTUENEKO 20 HERRIALDEAK ETA KUOTAK HOBEKIEN EBOLUZIONATU DUEN 20 HERRIALDEAK						



SARRERA





SARRERA

Kanpo-sektorea Euskal Autonomia Erkidegoko motor ekonomiko nagusietako bat da. Euskal ekonomia ekonomia irekia da. EAEko esportazioak ia bikoiztu dira mende berria hasi zenetik; hain zuzen ere, 2017an 23.900 milioi € inguru esportatu ziren, hots, BPGd-aren % 32,4ren baliokidea, eta hori errekor absolutua izan zen. EAEko esportazioek dinamismoari eutsi zioten 2018an, urte horretan esportazioen errekorra lortu baitzen berriro. Aldi berean, kanpoaldean ezarpenak dituzten enpresa asko daude.

Datuek baieztatzen dutenez, EAE ekonomia irekia da eta badauka tartea bere nazioartekotzea areagotzen jarraitzeko eta erreferentziako herrialde eta eskualde industrialetara hurbiltzeko. Horrez gain, EAEko ekonomia erronka bati aurre egiten ari zaio: harekin harreman ekonomikoak dituzten herrialdeak areago dibertsifikatu behar ditu, eta nazioarteko dinamikari jarduera gehiago gaineratu; izan ere, merkatu eta sektore gutxi batzuek EAEko enpresen nazioartekotzearen zati handi bat metatzen dute.

Testuinguru honetan, interesgarritzat jotzen da kanpo-merkataritza hori analizatzea herrialde eta sektore bakoitzeko inportazioen bilakaera alderatuz.

Horri dagokionez, azterketa honek nazioarteko merkatu nagusien analisi xehatua biltzen du, azken 15 urteetako datuak aztertuz, bai merkatu horietako inportazioei dagokienez bai EAEtik merkatu horietara egindako esportazioei dagokienez. Horrela, informazio esanguratsua eman ahalko da, bai inportazioen munduko joerei bai EAEko esportazioen posizionamenduari buruz.

Azterketa honek erakusten du zein sektore hazten ari diren gehiago nazioarteko merkataritzan (inportazioak), bai zenbateko absolututan (milioi dolarretan) bai hazkunde metatuaren ehunekoan. Beraz, txostenak komertzialki erakargarriagoak edo dinamikoagoak diren sektoreak nabarmentzen ditu eta, hortaz, batez ere aukerak identifikatzea du helburu. Eta, horien artean, inportazio-bolumena zein herrialdetan hazten ari den gehiago.


Bestalde, ulertzen da EAEko kanpo-merkataritzaren portaera aztertuz, herrialde nagusietako inportazioekin erkatuta, EAEko lehiakortasun erlatiboaren edo haren posizionamenduaren adierazle gisa erabil daitekeela merkataritza-kuotaren bilakaera. Ildo horretan, txostenak erakusten du zein sektoretan irabazten edo galtzen ari den kuota eta, sektore bakoitzean, ranking-formatuan, zein eremu edo herrialdetan irabazten ari garen kuota.

Beraz, epe luzeko bilakaera (15 urte, 2002tik 2017ra) eta epe ertainekoa (bost urte, 2012tik 2017ra) analizatzen dira. Rankingen analisisa lehenestean, azken 5 urteetako bilakaerari begiratzea erabaki dugu, joera berriena delakoan.

Gainera, kontuan hartu behar da ezen, sektoreko xehetasunean jaitsi ahala, inportazioei eta esportazioei buruzko urteko datuek aldaketa garrantzitsuak izan ditzaketela. Hori dela eta, bilakaerak zuhurtziaz hartu behar dira, bai inportazioenak bai hautatutako urte-multzotik ateratzen diren kuotenak. Gure helburua da aurrerago beste azterketa bat egitea, datu-segidak leunduz, zenbait urtetako batezbestekoak aplikatuz eta haien bilakaera berriro ere ikusiz.

Atera daitezkeen ondorio orokorrak edozein direla ere, ulertzen dugu txosten honek intereseko material estatistikoa aurkezten duela laburbilduta, 15 zona ekonomikotan eta 34 eremu edo herrialdetan, muga-zergen 22 atalei eta 51 ekonomia-sektoreei buruzkoa, eta hori, berez, EAEko

kanpo-sektorearen inguruko ezagutzari egindako ekarpena da, edozein eragile ekonomikorentzat interesgarria dena. Eta, gure ustez, euskal enpresentzako balioa duen zerbitzua da, eta horixe da Nazioartekotzeko Euskal Agentziaren helburu nagusia.



1

LABURPENA ETA ONDORIOAK



LABURPENA ETA ONDORIOAK

Munduko inportazioen bolumena, gutxi gorabehera, 17 bilioi \$ dira; hortaz, munduko guztizkoa % 6 murriztu da azken 5 urteetan. Petrolio-produktuen inportazioen balioaren (\$) beherakadaren faktorea bakanduz gero, ikusten dugu energia-arloaz bestelako munduko inportazioek % 3,3 egin dutela gora 5 urte hauetan.

Ikuspuntu geografikotik, ELGE da inportazio-bolumen handiena duen zona. Halaber, Europako Merkataritza Askearen Elkartea (EFTA) eta Ipar Amerikako Merkataritza Askeari buruzko Tratatu (IAMAT) nabarmentzen dira, 2012-2017ko aldian inportazioetan hazkundea izan duten zona bakarrak direlako. Hazkunde hori herrialdeka zehazteko, Golkoko Lankidetzaren Kontseilua (GLK) da azpimarragarria, % 17 igo delako, baita azken 5 urteetan % 10 baino gehiago igo diren inportazioak dauzkaten beste batzuk ere, adibidez, Polonia, Txekia-Eslovakia eta Mexiko.

Inportazioak murriztu dituzten herrialdeen artean, Brasil, Errusia, Japonia eta Kolonbia nabarmentzen ditugu, aldi horretan bertan % 20 baino gehiago jaitsi baitira.

Bestalde, EAEko esportazio gehienaren helmuga ELGEko herrialdeak, Europako Esparru Ekonomikoa (EEE) eta Europar Batasuna (EB28) dira oraindik. Alemania eta Frantzia dira esportazio horien bi xede nagusiak; hain zuzen, bi herrialdeon artean esportazioen % 31 biltzen dituzte. EAEko kuota, EAEk nazioartean duen presentziaren lehiakortasunaren adierazlea baita, Portugalen, Frantzia eta Marokon da handiena, herrialde horietan bakarrik gainditzen da-eta kuotaren % 0,5.

Bestalde, EAEko esportazioek hemen eduki dute hazkunderik handiena azken 5 urteetan: Europako Merkataritza Askearen Elkarrean (EFTA), Ipar Amerikako Merkataritza Askeari buruzko Tratatuaren (IAMAT) eraginpeko herrialdeetan eta, herrialdeka, Kolonbian, Israelen, Kanadan eta Japonian.

Jarduera ekonomikoen ikuspuntutik, munduko inportazio-bolumen handiena material elektrikoaren atalean egon da. Muga-zergen atalen araberrako inportazioen bilakaerak erakusten du produktu mineralak, petrolioaren deribatuak, jaitsi direla batez ere. Askotariko salgaienak, oinetakoenak eta osagarrienak eta zurarenak eta haren manufakturenak dira azken urteetan gehien hazi direnak: horiek guztiak, % 10 baino gehiago.

EAEko sektore esportatzaileen artean, munduko inportatzaile nagusiak dira ekipamendu-ondasun elektrikoak, produktu mineralenak, produktu kimikoenak eta bestelako makina mekanikoenak, horiek guztiek bilioi 1 \$ gaintu dituzte eta. Sektore horietatik, ibilgailu automobilenak eta beste ekipamendu-ondasun elektriko batzuenak hazi dira gehien azken urteotan. Azken 5 urteetan gehien murriztu direnak, produktu mineralenak (-% 43) eta hodi eta osagarrienak (-% 28) gain, altzairuzko barra eta profila eta makina-erremintarena izan dira, bi sektoreotan % 27ko beherakada egon da eta.

Txostenean eta 2. eranskinean, sektore bakoitzaren bilakaera eta horien herrialdeen araberrako bilakaera ikus daitezke eta, beraz, irakurleari interesatzen zaizkion jardueretan aukera komertzialak aurki daitezke.

EAEko esportazioei dagokienez, garraio-materialaren, metalen eta haien manufakturen eta material elektrikoaren atalak dira hiru esportatzaile nagusiak, denen artean esportazioen % 70 metatzen baitituzte.

EAEk ibilgailu automobilen eta motor eta sorgailu elektrikoaren sektoreetan egindako esportazioek eduki dute hazkunderik handiena azken 5 urteetan, % 100 baino gehiagoko gehikuntza izan dute eta.

Kuotari dagokionez, trenbideetako ibilgailuen sektoreak dauka kuotarik handiena (% 2,72). Horren ostean, altzairu arruntezko barrak eta profilak eta altzairu herdoilgaitz eta aleazio-altzairuzkoak datoz.

Garrantzitsua da azpimarratzea ezen, maila teknologikoaren ikuspuntutik, teknologia-maila altueneko sektoreetara egindako esportazioetan gehikuntza egon dela (eduki altukoak % 17 hazi dira, eta ertain-altukoak, aldiz, % 16) eta maila ertain-baxuko edo baxuko sektoreetara egindakoek behera egin dutela.

EAEko esportazioen posizionamenduari begira, munduko inportazioen % 0,16 xurgatzen dute; hain zuzen ere, kuota hori pixka bat (+0,01 puntu) igo da azken 5 urteetan.

Kuota sektoreka eta herrialdeka oro har ikusita, Kolonbian izan du EAEk 2017an kuotarik handiena trenbideetako ibilgailuen sektorean, herrialde horretan dituen inportazioen % 75,64 izan baitira. Sektore horretako hurrengo kuotarik onena Turkian eta Golkoko Lankidetzaren Kontseiluan eduki da. Era berean, kuotaren hazkunde handienak, Kolonbian, trenbideetako ibilgailuen sektorean gertatu dira, eta Argentinan, aldiz, motor eta sorgailu elektrikoenean. Txostenean EAEko sektore nagusien bilakaera zehazten da, herrialdeen arabera.

Maila teknologikoaren ikuspegitik, EAEko kuota nagusia maila erdi-baxuko sektoreetan lortu da, eta maila erdi-altuko sektoreetan hazi da gehien.

Nolanahi ere, txostenean eta 3. eta 4. eranskinetan, EAEko kuotek sektore bakoitzean dituzten mailak eta joerak aurki ditzake irakurleak. Halaber, interesatzen zaizkionak balora ditzake, gure posizionamendua indartsuagoa edo ahulagoa den eta hobetzen ari den sektoreak identifikatuz.

Matrize batean herrialdeak eta sektoreak aurkezten dira, inportazioen hazkundearen arabera, baita EAEko kuotaren bilakaera ere, koadrante hauek definituz:

- **Indartsuak:** azken 5 urteetan inportazioak hazi diren eremuak, herrialdeak edo sektoreak, EAEko kuota ere hazi bada.
- **Helduak:** inportazioak hazi ez diren eremuak, herrialdeak edo sektoreak, EAEko kuota hazi egin bada.
- **Potentziala dutenak:** azken 5 urteetan inportazioak hazi diren eremuak, herrialdeak edo sektoreak, EAEko kuota hazi ez bada.
- **Interes baxukoak:** azken 5 urteetan inportazioak hazi ez diren eremuak, herrialdeak edo sektoreak, EAEko kuota ere ez bada hazi.

Herrialdeei dagokienez, Polonia, Txekia-Eslovakia, Ameriketako Estatu Batuak eta Alemania gailentzen dira EAEk bertan duen indarragatik. Eta potentzialagatik, Mexiko, Golkoko Kontseilua, Txina eta Portugal (azken kasu horretan, txikia den arren).

Sektoreak direla-eta, ibilgailu automobilenak dauka posizio indartsuena kuoten eta inportazioen hazkundeari dagokionez. Beste sektore indartsu batzuk daude, batez ere, salgaien ibilgailuak, automobilen osagaiak, manufaktura metalikoak,

aluminioa, jasogailuak eta edariak. Eta sektore hauek dute potentziala, besteak beste: aeroespazialak, beste ekipamendu-ondasun elektriko batzuek, ostalaritza-ekipamenduak eta etxeko aparatuek, elikadurak, burdinazko edo altzairuzko beste manufaktura batzuek.

1. lehentasuneko herrialdeak:

- **Alemania:** posizio indartsua, kuota altuekin salgaien garraiorako ibilgailuetan, altzairuzko barra eta profiletan, makina-erremintan, erremintetan eta ibilgailu automobiletan. Posizio indartsuko sektoreak: ibilgailu automobilak, trenbideetako ibilgailuak, garabiak eta jasogailuak eta motor eta sorgailu elektrikoak. Potentzialagatik gailentzen diren sektoreak: burdinazko eta altzairuzko manufakturak, automobilgintzako zatiak eta osagarriak.
- **Italia:** merkatu heldua. Kuota altuak altzairuzko barra eta profiletan, armetan, hodiedetan eta makina-erremintetan. Posizio indartsua sektore askotan, hala nola makina-erremintan, salgaien ibilgailuetan, automobilgintzan, jasogailuetan, motorretan eta altzairu arruntezko produktu lauetan. Bestalde, hauek lirateke potentziala duten sektoreak: automobilen zati eta osagarriak, erremintak, aluminioa eta ostalaritzako ekipamendua, besteak beste.
- **Erresuma Batua:** merkatu heldua. Kuota altua altzairu arruntezko barra eta profiletan eta altzairu herdoilgaitz eta aleazio-altzairuzkoetan, makina-erremintan, armetan eta munizioetan, salgaien ibilgailuetan eta jasogailuetan. Posizio indartsua jasogailuetan, salgaien ibilgailuetan, automobiletan eta haien osagaietan, kabletan eta torlojuetan. Potentziala itsas nabigazioan,

Eusko Jaurlaritzaren Enpresak Nazioartekotzeko 2017-2020 Planean lehentasunekoak edo aztertu beharrekoak diren 16 herrialderi buruzko banakako analisia egin da. Azterketa honek horiei dagokienez duen balioa aurkeztutako taulak eta matrizeak lirateke, baina hemen herrialde bakoitzari buruzko ondorio nagusiak azpimarratzen ditugu:

- trenbideetako ibilgailuetan, jasogailuetan, salgaien ibilgailuetan eta elikaduran.
- **Txina:** indartsuen eta potentziala dutenen kategorien arteko muga dago haren posizioa. Merkatu handia eta urruna denez, hango kuotak baxuagoak dira, baina hodiak nabarmentzen dira eta, neurri txikiagoan, trenbideak, makina-erremintak eta erremintak ere bai. Hauek dira sektore indartsuak, adibidez: edariena, aeronautikoa, erremintena, orearena eta paperarena. Eta automobilgintzako osagaienak eta ekipamendu-ondasun elektrikoenak potentziala dute. Aipatu behar da datu horiek ez dutela erakusten Txinan ezarritako EAEko fabrikek herrialde horretan egiten dituzten salmentak.
- **Mexiko:** potentziala duen herrialdea. Kuota altuak trenbideetan, altzairu arruntezko barra eta profiletan eta, neurri txikiagoan, sektore aeronautikoan, biltegietan eta makina-erremintetan. Indartsua motor elektrikoetan, eta sektore asko indartsuen eta potentziala dutenen kategorien arteko mugatik hurbil daude, esate baterako, automobilgintza, makina-erremintak, ostalaritzako ekipamendua, kableak, motor elektrikoak eta jasogailuak. Aipatu behar da datu horiek ez dutela erakusten Mexikon ezarritako EAEko fabrikek herrialde horretan egiten dituzten salmentak.

- **Ameriketako Estatu Batuak:** posizio indartsua. Kuota interesgarria hodietan eta osagarrietan, altzairuzko barra eta profiletan, armetan eta munizioetan eta trenbideetako ibilgailuetan. Sektore indartsu asko eta potentziala duten sektore ugari daude. Lehenengoen artean,

aluminioa, motorrak, altzairu arrunta, automobilgintza eta erremintak gailentzen dira eta, bigarrenen artean, berriz, garabien eta jasogailuen sektorea, aeroespaziala, ontzigintza eta burdinazko eta altzairuzko manufakturak, besteak beste.

2. lehentasuneko herrialdeak:

- **Frantzia:** teoriarik interes baxuko herrialdea, gure kuota eta hango inportazioak jaitsi egin direlako. Baina ohartarazi behar da EAEko kuotarik altuena duen herrialdea dela, Portugalen ostean. Sektoreka, honako hauetan nabarmentzen da kuota: hodietan, altzairu herdoilgaitzean, automobilgintzako osagaietan, kautxuan, kableetan eta aluminioan, horiek guztiek % 3 baino gehiago baitaukate. Gainera, % 2tik gorako kuota duten beste sei sektore daukagu. Potentziala dela-eta, makina-erreminta, ostalaritzarako ekipamenduak eta etxeko aparatuak gailentzen dira. Indarragatik, ordea, automobilgintzako osagaiak, edariak eta manufaktura metalikoak. Salgaien ibilgailuak, ontzigintza eta automobila mugan dauden arren, oso interesgarriak lirateke.
- **Kolonbia:** herrialde heldua, non gure kuota asko hazi den baina inportazioek behera egin duten. Kontua da batez ere trenbideetako materialean hazi garela eta horrek kalkulu guztia baldintzatzen duela. Kuota altua aipatutako trenbideetako materialean, altzairu arruntan eta jasogailuetan. Halaber, azpimarratu behar da Kolonbiako inportazioak ia sektore guztietan murriztu direla. Hortaz, EAEko esportazio gehienak helduak edo interes baxukoak dira, betiere 2012-17ko aldiko datuen arabera.

Edarien sektoreak eta altzairu herdoilgaitzarenak potentziala dute.

- **Brasil:** herrialde heldua, interes baxua markatzen duen mugatik hurbil jada. Herrialde horretan, kuota global ohargarria daukagu, % 0,22koa, eta horren barruan sektore aeroespaziala, trenbideena, altzairu arruntarena eta burdinazko manufaktura nabarmentzen dira. Kolonbiari buruz aipatu bezala, sektore asko heldutasuneko edo interes baxuko eremuan daude. Edarrietan potentziala dago, eta elikaduran ere bai, baina gutxiago. Indartsuak aluminioan.
- **Errusia:** herrialde heldua. Gure kuota hazi egin da, baina batezbestekoaren azpian dago. Sektore asko helduak edo interes baxukoak dira. Potentziala ontzigintzan eta sektore aeroespazialean.
- **India:** herrialde heldua, zenbaketa globalean. Hala ere, bertan sektore interesgarri anitz daude, indarragatik (batez ere transformadoreak, papera, manufaktura metalikoak, burdina eta altzairua, trenbideak eta beste ekipamendu-ondasun elektriko batzuk) zein potentzialagatik (edariak, sektore aeroespaziala, elikadura, aluminioa, kobrea, ostalaritzako eta etxeko ekipamendua, automobilgintzako osagaiak, erremintak..).

Aztertu beharreko herrialdeak

- **ASEAN:** interes baxua zenbaketa globalean. Hala ere, indartsuak diren edo potentziala duten sektore asko daude, betiere merkataritza-kuota oso apalen barruan. Automobilgintza, aluminioa, transformadoreak eta papera lirateke sektore indartsuak. Trenbideek, ostalaritzako eta etxeke ekipamenduak, elikadurak, edariak, altzairu herdoilgaitzak eta jasogailuek dute potentziala.
- **Golkoko Lankidetzaren Kontseilua:** potentziala du. Oso kuota interesgarria trenbideetan eta makina-erremintetan. Trenbideetan soilik geundeke indartsu, baina potentziala legoke sektore aeroespazialean, ontzigintzan, transformadoreetan eta elikaduran.
- **Maroko:** herrialde heldua. Matrize globalean duen posizioan eragin handia izan du petrolio-inportazioen balioaren beherakadak. Hala ere, sektore indartsu ugari eta potentziala duten sektore asko dauzka. EAEko kuota altua da, batez ere altzairu arruntean, motor elektrikoetan, erremintetan, jasogailuetan eta hodietan. Indartsuak hodietan, kableetan eta automobilgintzan. Potentziala sektore aeronautikoan, automobilgintzako osagaietan, motorretan, trenbideetan, transformadoreetan, jasogailuetan eta makina-erremintetan.
- **Japonia:** herrialde heldua, EAEko kuota baxuak dituena. Sektore hauek lukete potentziala: ontzigintza, automobilgintzako osagaiak, motorrak, jasogailuak eta trenbideak. Eta EAE automobilgintzan eta motor elektrikoetan litzateke indartsua.
- **Hego Korea:** heldua zenbaketa globalean. Dena den, interesgarria da sektore anitzetan hazkundeak dauzkalako. Hortaz, EAEko esportazio askok indarra (ekipamenduak, manufaktura metalikoek, edariak) edo potentziala (salgaien ibilgailuek, automobilgintzak, makineria mekanikoak, besteak beste) daukate.

2

METODOLOGIA



2 METODOLOGIA

Txosten honek bigarren mailako iturri nagusi bi erabili ditu oinarri gisa, eta datu horien bitartez zenbait analisi egin dira. Inportazioak aztertzeko, NBERen UN Comtraderen datuak baliatu dira, eta EAEko esportazioak EUSTATen, Euskal Estatistika Erakundearen, datuekin analizatu dira.

Txosteneko datu guztiak milioi dolarretan ematen dira. Horretarako, EAEko esportazioei buruzko datuak dolarretan kalkulatu dira, Europako Banku Zentraleko truke-tasen arabera. 1. eranskinean, urte bakoitzean baliatutako truke-tasak jaso dira.

Kasu batzuetan, erreferentziako iturriak, UN Comtradek, ez zeukan datu eskuragarriak datuak deskargatu eta analizatu ziren egunean (2018ko abenduaren 28an), eta horrelakoetan zenbatetsi egin dira. Zenbatespena egin zaien herrialdeak 1. eranskinean zerrendatzen dira.

2017ko datuen zenbatespena azken 8 urteetako batezbestekoarekin egin da. Korrelazio zenbatetsiko analisia egin da, 3, 5, 6, 7 eta 8 urtetako urte arteko hazkundearen batezbestekoaren arabera. Analisi honen ostean, ikusi da azken 8 urteetako hazkundearen batezbestekoarena doitzen dela hoberen herrialdeei buruz eskuragarri zeuden 2017ko datuetara. Izan ere, horrexek jasotzen du 2009az geroztiko batezbestekoa, krisialdiaren ostekoa hain justu, eta korrelazio altuena erregistratzen du. Horrela, batezbesteko hori erabili da eskuragarri ez zeuden datuak zenbateteko.

Hauek dira Pearsonen koefizienteak, kontuan izanik 0 eta 1 bitartekoak direla (0, korrelazio nulua eta 1, korrelazio osoa): azken 3 urteetarako, 0,47; azken 5 urteetarako, 0,67; azken 6 urteetarako, 0,74; azken 7 urteetarako, 0,80; eta, azkenik, azken 8 urteetarako, 0,82. Korrelazio-koefiziente adierazgarria eta 0,8 baino altuagoa fidagarritzat jotzen da zenbatespenari begira. 1. eranskinean, datu zenbatetsiak dituzten herrialdeak zerrendatzen dira.

Munduko inportazioei eta EAEko esportazioei buruzko datuak analizatzeko eta interpretatzeko txostenean, aldiz, sailkapen hauek erabili dira:

- ZONA GEOGRAFIKOEN araberako sailkapena.
 - 15 zona ekonomiko.
 - 34 eremu/herrialde (ikusi 1. eranskina).
- JARDUERA EKONOMIKOAREN araberako sailkapena.
 - Muga-zergen 22 atal.
 - 51 sektore (ikusi 1. eranskina).
 - 4 maila teknologiko (ikusi 1. eranskina).

Jarduera ekonomikoari dagokionez, txosteneko atal batzuetan 31 sektore jorratu dira eta beste kasu batzuetan, berriz, 20, EAEko esportazioen helmuga diren sektore gisa rankingean daukaten garrantziagatik.

1. eranskinean, metodologiari buruzko informazio gehiago ematen da.

3

MUNDUKO
INPORTAZIOEN
ANALISIA ETA
BILAKAERA



3

MUNDUKO INPORTAZIOEN ANALISIA ETA BILAKAERA.

3.1. Munduko ekonomia nagusietako inportazioen analisia eta bilakaera, zona geografikoen arabera.

Lehenik eta behin, inportazioak zona ekonomikoen arabera erakusten dira, 2002ko, 2012ko eta 2017ko datuak eskainiz, baita haien bilakaera ere, milioi dolarretan eta ehunekoan.

1. taula- 15 ekonomia-eremuen inportazioen bilakaera

ZONAK	2002	2012	2017	Bilak. 2017-2002		Bilak. 2017-2012	
				(mill. \$)	(%)	(mill. \$)	(%)
EB28 - Europar Batasuna-28	2.557.585	5.741.787	5.073.572	2.515.987	98%	-668.215	-12%
E - Eurogunea	1.892.441	4.247.488	3.664.459	1.772.018	94%	-583.029	-14%
EEE - Europako Esparru Ekonomikoa	2.594.731	5.833.867	5.153.725	2.558.994	99%	-680.142	-12%
EFTA - Europako Merkataritza Askearen Elkartea	124.473	387.151	412.500	288.027	231%	25.349	7%
ELGE - Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea	4.729.636	10.867.525	9.638.430	4.908.795	104%	-1.229.095	-11%
ELGE EBtik kanpo	2.393.226	5.639.003	5.406.654	3.013.427	126%	-232.350	-4%
EIE - Estatu Independenteen Erkidegoa	83.073	516.287	363.194	280.121	337%	-153.093	-30%
MAH - Mediterraneoar Arroko Herrialdeak	174.458	609.205	546.507	372.050	213%	-62.697	-10%
IAMAT - Ipar Amerikako Merkataritza Askearen Tratatuak	1.591.186	3.167.795	3.260.164	1.668.978	105%	92.369	3%
L - Latinoamerika	319.534	1.050.609	865.289	545.754	171%	-185.320	-18%
MERCOSUR - Hego Amerikako Merkatu Erkidea	71.534	373.438	209.339	137.806	193%	-164.098	-44%
AED - Asiako Ekonomia Dinamikoak	627.316	1.896.557	1.652.576	1.025.260	163%	-243.981	-13%
HIB - Asiako Herrialde Industrializatu Berriak	476.534	1.452.785	1.396.003	919.468	193%	-56.782	-4%
LPEE - Lurralde Petrolio Esportatzaileen Erakundea	176.675	833.995	756.049	579.374	328%	-77.946	-9%
G7 - Zazpien Taldea	3.173.099	6.689.205	6.390.778	3.217.678	101%	-298.427	-4%
Munduko guztizkoa	6.524.435	18.121.293	17.037.539	10.513.104	161%	-1.083.754	-6%

Iturria: UN Comtrade

ELGE gailentzen da inportazio-bolumen handiena duen zona delako. Halaber, Europako Merkataritza Askearen Elkartea (EFTA) eta Ipar Amerikako Merkataritza Askeari buruzko Tratatuak (IAMAT) nabarmentzen dira, 2012-2017ko aldian inportazioetan hazkundea izan duten zona bakarrak direlako (% 7 eta % 3, hurrenez hurren).

Ondoren, informazio hori aurkezten da, azterketa honetan analizatu diren 34 eremu edo herrialdeen arabera.

2. taula- 34 eremu/herrialdeen inportazioen bilakaera. 2012/17ko hazkundearen araberako rankinga

EREMUAK/HERRIALDEAK	2002	2012	2017	Bilak. 2017-2002		Bilak. 2017-2012	
				(mil. \$)	(%)	(mil. \$)	(%)
GLK	97.194	485.437	565.625	468.431	%482	80.188	%17
Polonia	54.266	191.430	217.979	163.712	%302	26.548	%14
Txekia-Eslovakia	64.859	216.586	245.876	181.017	%279	29.289	%14
Mexiko	168.651	370.751	420.369	251.719	%149	49.618	%13
Portugal	40.032	72.506	77.848	37.816	%94	5.342	%7
Ameriketako Estatu Batuak	1.200.096	2.334.678	2.407.390	1.207.294	%101	72.712	%3
Txina	295.170	1.818.199	1.843.793	1.548.623	%525	25.594	%1
Alemania	490.450	1.161.213	1.173.628	683.177	%139	12.414	%1
Iran	20.336	*	*				
Turkia	51.270	236.545	233.800	182.529	%356	-2.745	-%1
Argentina	8.990	67.974	66.899	57.910	%644	-1.075	-%2
Peru-Bolivia	9.262	50.753	49.066	39.804	%430	-1.687	-%3
Europako iparraldeko herrialdeak	184.718	419.265	401.731	217.013	%117	-17.534	-%4
Maroko	11.878	44.790	42.647	30.769	%259	-2.143	-%5
Israel	33.106	73.112	69.116	36.010	%109	-3.996	-%5
Kanada	222.440	462.366	432.405	209.965	%94	-29.961	-%6
Erresuma Batua	372.059	689.137	641.332	269.273	%72	-47.805	-%7
Belgika	198.095	437.883	406.412	208.318	%105	-31.470	-%7
Italia	246.609	489.104	451.416	204.806	%83	-37.689	-%8
Hego Korea	152.124	519.576	478.469	326.345	%215	-41.106	-%8
Frantzia	303.831	666.675	613.133	309.301	%102	-53.543	-%8
Aljeria	12.010	50.369	46.053	34.043	%283	-4.316	-%9
Australia	73.026	250.465	228.442	155.416	%213	-22.023	-%9
India	57.453	488.976	444.052	386.599	%673	-44.924	-%9
Suitza	87.327	295.071	267.501	180.175	%206	-27.570	-%9
Singapur-ASEAN	359.349	1.194.316	1.081.972	722.623	%201	-112.345	-%9
Herbehereak	194.115	500.605	450.076	255.961	%132	-50.530	-%10
Austria	72.796	169.663	149.130	76.334	%105	-20.533	-%12
Gainerako herrialdeak	957.596	2.696.120	2.286.802	1.329.206	%139	-409.319	-%15
Txile	15.383	80.086	65.062	49.678	%323	-15.024	-%19
Hegoafrika	26.221	104.144	83.031	56.810	%217	-21.114	-%20
Kolonbia	12.690	58.088	46.050	33.360	%263	-12.038	-%21
Japonia	337.613	886.031	671.474	333.861	%99	-214.557	-%24
Errusia	46.177	316.193	228.213	182.036	%394	-87.980	-%28
Brasil	47.243	223.183	150.749	103.507	%219	-72.434	-%32
Munduko guztizkoa	6.524.435	18.121.293	17.037.539	10.513.104	%161	-1.083.754	-%6

Iturria: UN Comtrade

* Honako hauek dira MMAan Iranen inguruan eskuragarri dauden datuak: 57.092 (2012. urtea) eta 49.000 (2017. urtea)

Azken 5 urteetan munduko inportazioak % 6 jaitsi diren arren, zenbait herrialdetan hazi egin dira. Bereziki, Golkoko Lankidetza Kontseilua (GLK) azpimarratuko genuke, % 17ko igoera izan duelako. Halaber, Polonian, Txekia-Eslovakian eta Mexikon ere % 10etik gora hazi dira azken 5 urteetan.

Inportazioak murriztu dituzten herrialdeen artean, Brasil, Errusia, Japonia eta Kolonbia nabarmentzen ditugu, azken 5 urteotan % 20 baino gehiago jaitsi baitira.

Aipatu behar da beherakada horretan, kasu askotan, eragina izan duela petrolio-produktuen inportazioen balioaren (dolarretan) beherakadak. Nabarmenezkoa da ezen, aldi horretan munduko inportazioak bilioi 1 dolar murriztu diren arren, petrolioarenak 1,5 bilioi jaitsi direla. Beraz, energia-arloaz bestelako munduko inportazioak % 3,3 hazi dira 5 urte hauetan.

3.2. Munduko inportazioen analisia, jarduera ekonomikoaren arabera.

Atal honetan, munduko inportazioak jarduera ekonomikoaren arabera analizatzen dira, hiru sailkapenak bereiziz: atal ekonomikoak, sektore ekonomikoak eta maila teknologikoen arabera taldeak.

3. taulan, 3 urtetako inportazioak (2002koak, 2012koak eta 2017koak) analizatzen dira, baita 10 urtetan (2002-2017) eta 5 urtetan (2012-2017) izan duten bilakaera ere, bai balioan bai ehunekotan.

3. taula- 22 atalen munduko inportazioen bilakaera. 2012/17ko hazkundearen arabera rankinga.

ATALAK	2002	2012	2017	Bilak. 2017-2002		Bilak. 2017-2012	
				(milioak \$)	(%)	(milioak \$)	(%)
99-Sailkatu gabeak	167.983	275.432	371.758	203.776	%121	96.327	%35
XX-Askotariko salgaiak	164.459	336.879	386.342	221.883	%135	49.463	%15
XII-Oinetakoak eta osagarriak	63.170	130.500	148.218	85.047	%135	17.718	%14
IX-Zura eta haren manufakturak	77.028	126.525	141.467	64.439	%84	14.942	%12
XVII-Garraio-materiala	747.733	1.596.322	1.753.758	1.006.025	%135	157.435	%10
I-Animalia-erreinuko produktuak	132.961	315.151	334.187	201.225	%151	19.036	%6
XVI-Material elektrikoak	1.841.551	4.416.514	4.682.372	2.840.821	%154	265.858	%6
XIX-Armak eta munizioak	4.110	9.659	10.229	6.119	%149	570	%6
XIII-Zementuak eta beira	71.540	154.136	162.168	90.628	%127	8.031	%5
IV-Elikagaiak	198.355	525.785	550.243	351.888	%177	24.458	%5
XVIII-Optika- eta doitasun-aparatuak	222.223	588.827	614.712	392.489	%177	25.885	%4
XXI-Arte-objektuak	11.668	23.061	23.832	12.164	%104	772	%3
II-Landare-erreinuko produktuak	153.742	462.799	478.098	324.356	%211	15.299	%3
XI-Ehunak eta haien manufakturak	376.121	661.405	669.264	293.143	%78	7.859	%1
VIII-Larrua eta haren manufakturak	53.343	105.065	105.028	51.684	%97	-38	%0
VII-Plastikoa eta kautxua	269.136	773.350	771.755	502.619	%187	-1.595	%0
VI-Produktu kimikoak	583.587	1.625.779	1.606.255	1.022.667	%175	-19.524	-%1
X-Papera eta haren manufakturak	153.717	260.299	245.273	91.555	%60	-15.026	-%6
XIV-Bitxiak eta imitaziozko bitxiak	135.196	688.064	638.270	503.074	%372	-49.794	-%7
XV-Metalak eta haren manufakturak	407.530	1.255.892	1.136.773	729.244	%179	-119.118	-%9
III-Koipeak eta olioak	23.925	104.631	89.607	65.682	%275	-15.025	-%14
V-Produktu mineralak	665.356	3.685.216	2.117.931	1.452.575	%218	-1.567.286	-%43
Guztira	6.524.435	18.121.293	17.037.539	10.513.104	%161	-1.083.754	-%6

Iturria: UN Comtrade

Munduko inportazio-bolumen handiena material elektrikoaren atalean egon da; besteak beste, makina eta aparatu elektrikoak, makineria mekanikoa, etxetresna elektrikoak eta abar hartzen ditu barne. Muga-zergen atalen arabera inportazioen bilakaerak erakusten du produktu

mineralak (petrolioaren deribatuak) jaitsi direla batez ere. Askotariko salgaienak, oinetakoenak eta osagarrienak eta zurarenak eta haren manufakturenak dira azken urteetan gehien hazi direnak: horiek guztiak, % 10 baino gehiago.

Gure merkataritzarako garrantzitsuenak diren atalen artean, azpimarratu behar da garraio-materialarenak eta material elektrikoarenak hazi direla eta metalenak eta haien manufakturenak murriztu direla.

Jarraian, inportazioak azterketa honetan definitutako 51 sektoreak kontuan hartuta

analizatzen dira, EAEko ekonomiaren 20 sektore esportatzaileenak nabarmenduz. 20 sektore horiek gure esportazioen % 76,5 dira guztira.

Berriz zehazten dira 3 urtetako inportazioak (2002koak, 2012koak eta 2017koak), baita 15 urtetan (2002-2017) eta 5 urtetan (2012-2017) izan duten bilakaera ere, bai balioan bai ehunekoa.

4. taula- 51 sektoreen munduko inportazioen bilakaera. 2012/17ko hazkundearen arabera rankinga.

SEKTOREAK		2002	2012	2017	Bilak. 2017-2002		Bilak. 2017-2012	
					(milioiak \$)	(%)	(milioiak \$)	(%)
99	Sailkatu gabeak	167.983	275.432	363.966	195.983	%117	88.534	%32
84A	Galdarak eta turbinak	57.079	135.262	170.258	113.179	%198	34.997	%26
85C	Bateria, metagailuak, elektroimanak	19.560	50.310	59.026	39.465	%202	8.716	%17
85D	Argiteria	32.845	42.871	49.923	17.078	%52	7.051	%16
87A*	Ibilgailu automobilak	352.305	656.639	758.650	406.345	%115	102.011	%16
94-96	Altzariak, jostailuak, beste batzuk	164.459	336.879	386.328	221.869	%135	49.448	%15
85E*	Beste ekipamendu-ondasun elektriko batzuk	805.587	2.069.900	2.357.576	1.551.989	%193	287.676	%14
44-46	Zura eta haren manufaktureak	77.028	126.525	141.460	64.432	%84	14.935	%12
88	Aireko edo espazioko nabigazioa	96.224	218.441	241.142	144.918	%151	22.701	%10
87C*	Zatiak eta osagarriak	155.798	351.249	385.741	229.943	%148	34.491	%10
83*	Manufaktura metalikoak	25.548	58.018	63.491	37.944	%149	5.473	%9
87D	Ibilgailu automobilak beste batzuk	50.506	130.565	142.512	92.006	%182	11.947	%9
76*	Aluminioa eta manufaktureak	66.390	155.515	167.189	100.800	%152	11.674	%8
84E	Ostalaritza-ekipamenduak eta etxeko aparatuek	69.412	157.531	168.268	98.856	%142	10.737	%7
22	Edariak	41.988	105.095	111.512	69.523	%166	6.417	%6
1 a 5	Animalia-erreinuko produktuak	132.961	315.151	334.179	201.218	%151	19.028	%6
93	Arma eta munizioak	4.110	9.659	10.228	6.119	%149	569	%6
68-70	Harrira, zementuak eta beira	71.540	154.136	162.159	90.619	%127	8.023	%6
39*	Materia plastikoak	205.881	559.728	586.850	380.969	%185	27.122	%6
90-92	XVIII Optika- eta doitasun-aparatuek	222.223	588.827	614.701	392.478	%177	25.874	%4
16-24 (-22)*	Elikagaiak	156.366	420.690	438.748	282.381	%181	18.057	%4
73D*	Burdinazko edo altzairuzko beste manufaktura batzuk	32.247	85.054	88.471	56.224	%174	3.416	%4
87B*	Salgaien garraioko ibilgailuak	62.984	136.444	141.353	78.369	%124	4.909	%4
72C	Altzairu herdoilgaitzeko eta aleazio-altzairuzko produktu lauak	20.330	60.463	62.544	42.215	%208	2.081	%3
97	XXI Arte-objektuak	11.668	23.061	23.832	12.164	%104	772	%3
6 a 14	Landare-erreinuko produktuak	153.742	462.799	478.073	324.330	%211	15.273	%3
41-43, 50-67	Ehunak eta haien manufaktureak	492.635	896.970	922.280	429.645	%87	25.310	%3
84D	Garabiak eta jasogailuak	14.924	46.400	47.326	32.401	%217	926	%2
73B	Gordailuak, ontziak	15.443	53.733	54.261	38.817	%251	527	%1
73C	Kableak, alanbreak, torlojuak, malgukiak	23.032	63.846	64.332	41.301	%179	486	%1
85B	Transformadoreak	34.428	92.238	91.907	57.479	%167	-331	%0
28-38*	Produktu kimikoak	583.587	1.625.779	1.606.207	1.022.620	%175	-19.572	-%1
82*	Erremintak eta tresnak	26.431	61.820	60.675	34.245	%130	-1.145	-%2
75, 78-81	Beste metal eta manufaktura batzuk	23.425	76.903	75.089	51.664	%221	-1.815	-%2
84F*	Bestelako makineria mekanikoa	673.880	1.498.109	1.442.626	768.746	%114	-55.483	-%4
84B	Motorrak	82.895	190.404	181.670	98.775	%119	-8.734	-%5
47-49*	Orea, papera eta haien manufaktureak	153.717	260.299	245.261	91.544	%60	-15.038	-%6
72D*	Altzairu herdoilgaitzeko eta aleazio-altzairuzko barrak eta profilak	11.272	37.136	34.936	23.664	%210	-2.200	-%6
71	Bitxiak eta imitaziozko bitxiak	135.196	688.064	638.265	503.068	%372	-49.799	-%7
85A	Motor eta sorgailu elektrikoak	29.079	78.144	72.265	43.186	%149	-5.880	-%8
89	Itsas edo ibailetako nabigazioa	20.735	68.765	61.000	40.265	%194	-7.765	-%11
40*	Kautxua eta manufaktureak	63.255	213.622	185.019	121.764	%192	-28.603	-%13
15	Koipeak eta olioak	23.925	104.631	89.602	65.677	%275	-15.029	-%14
72A	Altzairu arruntzeko produktu lauak	48.928	138.867	114.756	65.828	%135	-24.112	-%17
74	Kobrea eta haren manufaktureak	36.118	178.854	145.200	109.082	%302	-33.654	-%19
86*	Trenbideetako ibilgailuak	9.181	34.219	27.483	18.301	%199	-6.737	-%20
84C*	Metala lantzeko makina-erremintak	21.860	55.345	43.580	21.700	%99	-11.785	-%21
72B*	Altzairu arruntzeko barrak eta profilak	19.581	61.019	44.703	25.122	%128	-16.316	-%27
73A*	Hodiak eta osagarriak	26.814	95.500	69.590	42.776	%160	-25.911	-%27
72E	Burdinazko eta altzairuzko beste galdaketa batzuk	31.973	129.161	93.477	61.504	%192	-35.685	-%28
25-27*	Produktu mineralak	665.356	3.685.216	2.117.874	1.452.518	%218	-1.567.343	-%43
GUZTIRA		6.524.435	18.121.293	17.037.539	10.513.104	%161	-1.083.754	-%6

Iturria: UN Comtrade

* Letra lodiz idatzita dauden eta * ikurra duten datuek adierazten dute EAE-n gehien esportatzen diren 20 sektoreak direla.

Grafiko honetan, inportazioak azken 5 urteetan gehien hazi diren 20 sektoreak jasotzen dira.

1. grafikoa- 20 sektore nagusietako inportazioen hazkundera 2012-2017 (%)



Sektore hauek hazi dira gehien: galdara eta turbinena, bateria, metagailu eta elektroimanena, argiteriarena eta ibilgailu automobilena; 4 sektoreok % 15 baino gehiagoko hazkundera metatu dute azken 5 urteetan.

Gehien jaitsi direnak, aldiz, produktu mineralena (upelaren prezioaren beherakadatik) eta burdinazko eta altzairuzko beste galdaketa batzuen dira.

EAEko sektore esportatzaileenei dagokienez, ibilgailu automobilenak eta beste ekipamendu-

ondasun elektriko batzuenak hazi dira gehien azken urteotan. Esportatzeko beren gaitasuna dela-eta estrategikoak diren sektore horietatik, azken 5 urteetan gehien murriztu direnak, produktu mineralenaz (-% 43) eta hodi eta osagarrienaz (-% 28) gain, altzairuzko barra eta profilena eta makina-erremintarena izan dira, bi sektoreetan % 27ko beherakada izan da eta.

Azkenik, **maila teknologikoen** sailkapenaren arabera erakusten dira inportazioak.

5. taula- Munduko inportazioen bilakaera, maila teknologikoaren arabera

2012/17ko hazkunaren araberako rankinga.

MAILA TEKNOLOGIKOA	2002	2012	2017	Bilak. 2017-2002		Bilak. 2017-2012	
				(milioiak \$)	(%)	(milioiak \$)	(%)
Altua	1.394.945	3.288.280	3.592.898	2.197.953	158%	304.618	9%
Ertain-altua	1.939.198	4.879.225	5.109.014	3.169.815	%163	229.789	%5
Ertain-baxua	848.604	3.191.724	2.699.751	1.851.147	%218	-491.972	-%15
Baxua	1.177.012	2.492.286	2.588.150	1.411.137	%120	95.863	%4

Iturria: UN Comtrade-hemen eginda

Ikusten dugunez, munduko inportazioen beherakada maila teknologiko ertain-baxuko produktuetan metatzen da, baina maila teknologiko altuagoko segmentuetan hazi egin dira.

3.3. EAEko sektore nagusien bilakaera, herrialdeen arabera.

31 sektore hautatu dira, EAEko esportazioetan garrantzitsuenak direnak hain zuzen, eta bakoitzari dagokionez 20 herrialde nagusietako inportazioen hazkundera azaltzen da, inportazioek bai ehunekoan bai balio absolutuan izan duten igoera kontuan hartuta. Taula horiek 2. eranskinean biltzen dira.

Analisi honen helburua da herrialde dinamikoak eta gure esportazioetarako komertzialki interesgarriak direnak identifikatzea.

Laburpen gisa, beren inportazioen ehuneko-hazkunderagatiko lehen 50 sektoreak aipatzen dira jarraian:

6. taula- Lehen 50 sektoreak eremu/herrialdeen araberako inportazioen hazkundea aintzat hartuta (%)

SEKTOREA	EREMUAK/HERRIALDEAK	Bilak. 2017-2002 (%)	Bilak. 2017-2012 (%)	
89	Itsas edo ibaietako nabigazioa	Aljeria	%3173	%893
88	Aireko edo espazioko nabigazioa	Australia	-%25	%636
89	Itsas edo ibaietako nabigazioa	Erresuma Batua	%741	%246
89	Itsas edo ibaietako nabigazioa	Suitza	%570	%246
88	Aireko edo espazioko nabigazioa	Maroko	%455	%228
86	Trenbideetako ibilgailuak	Erresuma Batua	%376	%224
72D	Altzairu herdoilgaitzezko eta aleazio-altzairuzko barrak eta profilak	Israel	%845	%219
89	Itsas edo ibaietako nabigazioa	Australia	%1625	%206
86	Trenbideetako ibilgailuak	Argentina	%3310	%206
86	Trenbideetako ibilgailuak	Aljeria	%1865	%203
89	Itsas edo ibaietako nabigazioa	Argentina	%274	%187
86	Trenbideetako ibilgailuak	Peru-Bolivia	%2402	%177
87B	Salgaien garraiorako ibilgailuak	Portugal	-%15	%175
89	Itsas edo ibaietako nabigazioa	Turkia	%434	%166
88	Aireko edo espazioko nabigazioa	Portugal	%553	%165
87B	Salgaien garraiorako ibilgailuak	Hego Korea	%380	%150
87C	Zatiak eta osagarriak	Maroko	%1915	%148
84B	Motorrak	Maroko	%1142	%136
87A	Ibilgailu automobilak	Portugal	%92	%134
89	Itsas edo ibaietako nabigazioa	Errusia	%977	%132
86	Trenbideetako ibilgailuak	Maroko	%3550	%131
72D	Altzairu herdoilgaitzezko eta aleazio-altzairuzko barrak eta profilak	Peru-Bolivia	%1987	%124
22	Edariak	Argentina	%1604	%117
22	Edariak	Kolonbia	%847	%113
87A	Ibilgailu automobilak	Hego Korea	%1506	%112
22	Edariak	India	%4909	%111
89	Itsas edo ibaietako nabigazioa	Herbehereak	%371	%110
89	Itsas edo ibaietako nabigazioa	Kanada	%409	%110
86	Trenbideetako ibilgailuak	Singapur-ASEAN	%585	%108
88	Aireko edo espazioko nabigazioa	Aljeria	-%2	%107
88	Aireko edo espazioko nabigazioa	India	%942	%103
72D	Altzairu herdoilgaitzezko eta aleazio-altzairuzko barrak eta profilak	Aljeria	%621	%99
86	Trenbideetako ibilgailuak	GLK	%1208	%97
22	Edariak	Israel	%364	%89
87A	Ibilgailu automobilak	Txekia-Eslovakia	%248	%88
87A	Ibilgailu automobilak	Polonia	%258	%85
16-24 (-22)	Elikagaiak	India	%1323	%78
84C	Metala lantzeko makina-erremintak	Italia	%31	%77
87B	Salgaien garraiorako ibilgailuak	Italia	%23	%76
87B	Salgaien garraiorako ibilgailuak	Argentina	%3010	%75
88	Aireko edo espazioko nabigazioa	Herbehereak	%293	%71
22	Edariak	Txina	%3467	%70
85B	Transformadoreak	Turkia	%415	%70
87B	Salgaien garraiorako ibilgailuak	Txekia-Eslovakia	%132	%66
85E	Beste ekipamendu-ondasun elektriko batzuk	India	%1033	%64
73A	Hodiak eta osagarriak	Aljeria	%171	%60
73C	Kableak, alanbreak, torlojuak, malgukiak	Maroko	%394	%60
87B	Salgaien garraiorako ibilgailuak	Ameriketako Estatu Batuak	%61	%58
87B	Salgaien garraiorako ibilgailuak	Israel	%201	%57
22	Edariak	Brasil	%1099	%54

Iturria: UN Comtradek emandako datuekin hemen eginda

Eta, ondoren, inportazioen balioan hazkunde handiena izan duten 50 sektoreak erakusten dira:

7. taula- Lehen 50 sektoreak eremu/herrialdeen arabera inportazioen hazkunde aintzat hartuta (\$)

SEKTOREA	EREMUAK/HERRIALDEAK	Bilak. 2017-2002 (milioiak \$)	Bilak. 2017-2012 (milioiak \$)	
85E	Beste ekipamendu-ondasun elektriko batzuk	Txina	369.519	79.093
85E	Beste ekipamendu-ondasun elektriko batzuk	Ameriketako Estatu Batuak	176.933	52.662
87A	Ibilgailu automobilak	Ameriketako Estatu Batuak	64.233	30.735
85E	Beste ekipamendu-ondasun elektriko batzuk	Singapur-ASEAN	141.637	27.695
84F	Bestelako makineria mekanikoa	Ameriketako Estatu Batuak	129.911	22.162
28-38	Produktu kimikoak	Ameriketako Estatu Batuak	119.926	21.813
87A	Ibilgailu automobilak	Alemania	32.556	16.613
85E	Beste ekipamendu-ondasun elektriko batzuk	India	38.646	16.608
85E	Beste ekipamendu-ondasun elektriko batzuk	Alemania	72.833	16.000
85E	Beste ekipamendu-ondasun elektriko batzuk	Hego Korea	47.258	15.372
84F	Bestelako makineria mekanikoa	Hego Korea	36.859	14.527
28-38	Produktu kimikoak	Txina	108.249	14.489
87C	Zatiak eta osagarriak	Ameriketako Estatu Batuak	42.169	13.527
28-38	Produktu kimikoak	Alemania	88.867	11.705
87A	Ibilgailu automobilak	Italia	10.802	11.144
87A	Ibilgailu automobilak	Belgika	23.333	11.113
85E	Beste ekipamendu-ondasun elektriko batzuk	Txekia-Eslovakia	35.041	10.623
39	Materia plastikoak	Ameriketako Estatu Batuak	33.337	10.602
87B	Salgaien garraiorako ibilgailuak	Ameriketako Estatu Batuak	10.368	9.977
87A	Ibilgailu automobilak	Erresuma Batua	12.074	9.875
84F	Bestelako makineria mekanikoa	Alemania	53.874	9.007
85E	Beste ekipamendu-ondasun elektriko batzuk	Herbehereak	37.172	8.114
88	Aireko edo espazioko nabigazioa	Txina	21.442	7.881
76	Aluminioa eta manufakturak	Ameriketako Estatu Batuak	14.119	7.425
39	Materia plastikoak	Singapur-ASEAN	35.589	7.350
88	Aireko edo espazioko nabigazioa	GLK	17.797	6.953
87C	Zatiak eta osagarriak	Txina	25.763	6.711
88	Aireko edo espazioko nabigazioa	Ameriketako Estatu Batuak	13.202	6.506
84F	Bestelako makineria mekanikoa	Mexiko	28.446	6.245
87C	Zatiak eta osagarriak	Alemania	27.499	6.118
16-24 (-22)	Elikagaiak	Ameriketako Estatu Batuak	25.142	5.897
28-38	Produktu kimikoak	Suitza	29.064	5.786
84E	Ostalaritza-ekipamenduak eta etxeko aparatuak	Ameriketako Estatu Batuak	17.996	5.681
16-24 (-22)	Elikagaiak	Singapur-ASEAN	25.634	5.556
85E	Beste ekipamendu-ondasun elektriko batzuk	Mexiko	42.916	5.471
16-24 (-22)	Elikagaiak	Txina	14.803	5.385
87A	Ibilgailu automobilak	Europako iparraldeko herrialdeak	15.499	5.290
87A	Ibilgailu automobilak	Hego Korea	9.130	5.154
87A	Ibilgailu automobilak	Frantzia	18.032	5.083
85E	Beste ekipamendu-ondasun elektriko batzuk	Polonia	17.165	4.934
89	Itsas edo ibaietako nabigazioa	Australia	6.490	4.637
85E	Beste ekipamendu-ondasun elektriko batzuk	Turkia	14.678	4.531
47-49	Orea, papera eta haien manufakturak	Txina	20.537	4.530
87A	Ibilgailu automobilak	Txina	47.298	4.357
87A	Ibilgailu automobilak	Polonia	6.679	4.248
87C	Zatiak eta osagarriak	Txekia-Eslovakia	15.475	4.076
39	Materia plastikoak	Alemania	29.575	4.015
87C	Zatiak eta osagarriak	Mexiko	14.969	4.009
87A	Ibilgailu automobilak	Mexiko	5.677	4.003
22	Edariak	Ameriketako Estatu Batuak	14.445	3.931

Iturria: UN Comtradek emandako datuekin hemen eginda

4

EAEKO
ESPORTAZIOEN
ANALISIA ETA
BILAKAERA



4

EAEKO ESPORTAZIOEN ANALISIA ETA BILAKAERA

4.1. EAEk munduko ekonomia nagusietara egindako esportazioen analisia eta bilakaera, zona geografikoen arabera.

Lehenik eta behin, aipatu behar da esportazioak dolarretan adierazten direla eta, beraz, haien balioa eta bilakaera euro-dolar truke-tasaren bilakaeraren eraginpean ere badaudela. Hain zuzen, % 19,5eko aldaketa egon da 2002tik 2017ra; beraz, eragin onuragarria izan du dolarretan izendatutako esportazioen balioan. Hala ere, 2012tik eta 2017ra % 12,1 devaluatu da. Horregatik, azken 5 urteotan esportazioak, eurotan % 13,8 haziko lirartekeen arren, dolarretan % 2 jaitsi dira.

Lehenik eta behin, EAEko esportazioak helmuga geografikoen arabera analizatzen dira, zona ekonomikoen arabera lehenik eta eremu edo herrialdeen arabera bigarrenik.

8. taula- 15 ekonomia-eremuen euskal esportazioen bilakaera

ZONAK	2002	2012	2017	Bilak. 2017-2002		Bilak. 2017-2012	
				(milioiak \$)	(%)	(milioiak \$)	(%)
EB28 - Europar Batasuna-28	7.906	16.863	17.528	9.622	%122	665	%4
E - Eurogunea	6.513	13.538	13.852	7.339	%113	314	%2
EEE - Europako Esparru Ekonomikoa	7.954	17.064	17.755	9.800	%123	690	%4
EFTA - Europako Merkataritza Askearen Elkartea	122	413	492	371	%304	79	%19
ELGE - Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea	9.268	20.783	21.992	12.724	%137	1.210	%6
ELGE EBtik kanpo	1.425	4.181	4.800	3.374	%237	619	%15
EIE - Estatu Independenteen Erkidegoa	44	395	327	283	%640	-69	-%17
MAH - Mediterraneoar Arroko Herrialdeak	403	1.679	1.420	1.016	%252	-260	-%15
IAMAT- Ipar Amerikako Merkataritza Askearen Tratatuak	975	2.526	2.987	2.012	%206	461	%18
L - Latinoamerika	862	2.713	2.069	1.207	%140	-644	-%24
MERCOSUR - Hego Amerikako Merkatu Erkidea	335	1.164	511	176	%53	-653	-%56
AED - Asiako Ekonomia Dinamikoak	292	626	421	128	%44	-206	-%33
HIB - Asiako Herrialde Industrializatu Berriak	245	537	324	79	%32	-213	-%40
LPEE - Lurralde Petrolio Esportatzaileen Erakundea	329	1.523	872	543	%165	-650	-%43
G7 - Zazpien Taldea	6.396	13.587	13.783	7.386	%115	195	%1
Munduko guztizkoa	10.953	27.782	27.236	16.283	%149	-547	-%2

Iturria: Eustat

Zona ekonomikoak kontuan izanik, Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea (ELGE), Europako Esparru Ekonomikoa (EEE) eta Europar Batasuna (EB28) dira EAEko esportazioen helmuga nagusiak.

Bestalde, EAEko esportazioek hemen eduki dute hazkunderik handiena azken 5 urteetan: Europako

Merkataritza Askearen Elkartean (EFTA) eta Ipar Amerikako Merkataritza Askeari buruzko Tratatuaren (IAMAT) eraginpeko herrialdeetan. Aitzitik, Hego Amerikako Merkatu Erkidea (MERCOSUR) da azken 5 urteetan EAEko esportazioak gehien murriztu diren zona, -% 56 hain zuzen ere.

Ondoren, esportazioek 34 eremu edo herrialdeetan izan duten bilakaera aurkezten da, azken bost urteetako hazkundearen arabera ordenatuta.

9. taula- 34 eremu/herrialdetara egindako euskal esportazioen bilakaera.
2012/17ko hazkundearen arabera rankinga.

EREMUAK/HERRIALDEAK	2002	2012	2017	Bilak. 2017-2002		Bilak. 2017-2012	
				(milioiak \$)	(%)	(milioiak \$)	(%)
Kolonia	25	80	156	131	533%	75	93%
Israel	19	76	142	123	%644	66	%87
Kanada	81	115	191	110	%137	76	%66
Japonia	68	89	145	77	%112	57	%64
Polonia	125	425	574	449	%361	149	%35
Peru-Bolivia	18	79	104	86	%480	26	%33
Txekia-Eslovakia	109	501	632	523	%478	131	%26
Suitza	74	211	265	192	%261	54	%26
Herbehereak	329	691	853	524	%159	163	%24
Ameriketako Estatu Batuak	639	1.697	2.057	1.418	%222	360	%21
Europako iparraldeko herrialdeak	312	756	899	587	%188	143	%19
Argentina	19	125	148	130	%688	24	%19
Belgika	355	940	1.115	759	%214	175	%19
GLK	119	435	506	387	%325	71	%16
Txina	73	539	605	532	%732	66	%12
Austria	99	259	290	191	%193	31	%12
Alemania	1.622	3.828	4.265	2.643	%163	438	%11
Errusia	32	245	267	235	%744	21	%9
Maroko	103	272	290	187	%182	17	%6
Iran	58	110	116	58	%98	6	%6
Mexiko	255	714	739	483	%189	25	%3
Australia	48	199	200	152	%317	1	%0
Italia	831	1.243	1.243	412	%50	0	%0
Hegoafrika	35	208	207	172	%493	-1	%0
Turkia	121	524	519	398	%328	-4	-%1
Hego Korea	23	86	85	62	%275	-1	-%2
India	29	232	225	196	%675	-7	-%3
Erresuma Batua	850	1.808	1.708	858	%101	-100	-%6
Portugal	659	1.179	1.064	405	%61	-115	-%10
Frantzia	2.306	4.808	4.173	1.867	%81	-635	-%13
Txile	44	262	214	169	%382	-48	-%18
Aljeria	68	252	184	115	%168	-68	-%27
Brasil	274	466	330	56	%20	-136	-%29
Gainerako herrialdeak	875	3.782	2.481	1.606	%184	-1.302	-%34
Singapur-ASEAN	257	549	246	-11	-%4	-303	-%55
Guztira	10.953	27.782	27.236	16.283	%149	-547	-%2

Iturria: Eustat

Alemania eta Frantzia dira EAEko esportazioen bi helmuga nagusiak, bi herrialdeon artean horien % 31 metatzen dute eta. Horien ostean, Ameriketako Estatu Batuak dira hirugarrena garrantziari dagokionez eta, jarraian, Erresuma Batua, Italia, Belgika eta Portugal.

Bestalde, ehunekoari begira, azken 5 urteetan Kolonbian, Israelen, Kanadan eta Japonian gertatu dira hazkunde handienak.

4.2. EAEko esportazioen analisisia, jarduera ekonomikoaren arabera.

Atal honetan, EAEko esportazioak analizatu dira azterketa honetan aintzat hartzen diren jarduera ekonomikoaren aldagaien arabera, hots, muga-zergen 22 atalen, 51 sektoreen eta maila teknologikoen arabera.

10. taula- 22 atalen euskal esportazioen bilakaera.
2012/17ko hazkundearen araberako rankinga.

ATALAK	2002	2012	2017	Bilak. 2017-2002		Bilak. 2017-2012	
				(mil. \$)	(%)	(mil. \$)	(%)
XIX-Armak eta munizioak	54	58	103	49	%91	44	%76
II-Landare-erreinuko produktuak	13	41	71	58	%445	30	%74
IX-Zura eta haren manufakturak	39	74	122	83	%212	48	%65
XVIII-Optika- eta doitasun-aparatuak	90	168	248	158	%176	80	%48
XIV-Bitxiak eta imitaziozko bitxiak	2	11	16	13	%535	5	%40
XVII-Garraio-materiala	2.558	5.857	7.852	5.294	%207	1.994	%34
